

buletina mundukide




GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI BEGIRA, MONDRAGON ESPERIENTZIA KOOPERATIBOTIK JAIOTAKO LANKIDETZA

Mikrokredituak

Laburrak

INTERES ONENAK DITUEN KREDITU KANPAINA



Marrupa, Mozambiqueko distriturik behartsuenetarikoa da eta Mozambique berriz, Munduko hamar herrialde txiroenen artean dago. Marrupako nekazal sendi gehienek ur-

tean zehar 100 eta 200 euro bitarte maneiatzen dituzte, 30 bat Euro kideko.

Mundukidek, ereiteko garaiaren bueltan nekazaritza bultzatzeko maileguak lortzeko aukera zabaltzen du Marrrupan, urtero 2002a geroztik. Nekazariak abenduan mailegua hartu, lan egin, uzta jaso, saldu beharrekoa saldu eta abuztu aldera itzultzen dute, kredituari bueltatu beharreko dirua.

Nekazariak mailegatutako dirua euren nekazal lanetan erabiliz, ekoizpena eta salmentak igo ditzakete eta honela eguneroko beharrei erosoago aurre egin; arropak, eskola liburuak, gatza, etb... dira maiztasunez behar izaten dituzten artikuluetako batzuk.

2002an krediturako aukera zabaldu genuenetik, badira orduz geroztik gurekin lanean ari diren nekazariak. Pozgarria da oso, urteetako lan gogorraren poderioz, hainbat nekazal familiak izan duten hazkunde eta garapenaren lekuko izatea.

Beraz, Marrupako nekazarien bizitza duinagoa izan dadin, parte hartzea nahi baduzu, egizu zeure ekarpena.

Eta ziur egon %100ean asmatu duzula.

Eskerrik asko!

Konpromisoa alde bietarikoa da: programak ahalik eta laguntza txukunena ematen du eta nekazariak itzuli egiten dute jasotzen duten laguntza eta konfiantza.

Euskadiko Kutzaren laguntzarekin gauzatzen ari da kanpaina, Euskal Herriko bulego guztietan bezeroentzat ekarpena egiteko diptikoak eskura jarritz.



LAGUN INTERESATURIK?

Gonbida ezazu interesdun lagunen bat kanpaina parte hartzera atzeko orrialdean agertzen den izen-emate orria pasatuz.

Kreditua eman nahi diot Marrupako nekazariari. Deseo conceder un crédito para el agricultor de Marrupa.

% 20 eta %30 arteko kenkaria izan dezakezu zure Errentaren gaineko aitorpenean. Horretarako bete itzazu eskatutako datuak.

Puede deducir entre un 20% y un 30% de su aportación en la declaración de la Renta en función de su régimen fiscal. Para ello es imprescindible completar los campos.

Izen-Abizenak: _____ N.A.N: _____
Nombre y Apellidos D.N.I.

Helbidea: _____ Herria: _____ Codea: _____
Dirección Población C.P.

Tfnoa : _____ E-Maila: _____

20€ 50€ 100€ **Beste kopuru bat** **Aportazio bakarra** **Hilero** **Urtero**
Otra cantidad Aportación única Todos los meses Anual

Aportazioa Euskadiko kutxako edozein bulegotan egin dezakezu, Mesedez, fitxa bete ondoren entregatu bulegoan eta eskatu ekarpena Mundukideko kontura ingresatzeko. Eskerrik asko. La aportación se puede realizar en cualquier sucursal de Caja Laboral. Por favor, rellene la ficha y entréguela en la sucursal, solicitando ingresar la aportación en la cuenta de Mundukide Fundazioa. Gracias.

Caja Laboral : 3 035 0001 56 0010122192



CIF: G20673604 • Tel.943772010 • Zarugalde, 30. Arrasate 20500 .www.mundukide.org

Laguntzailea:




Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beterik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak MUNDUKIDE Fundazioaren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusketeko, zuzentzeko, ezereztatzeko eta kontrako egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, zuzendu zaituzte Mundukideko egotzara.

Mikrokredituak


MIKROKREDITU SISTEMAREN EZAUGARRIAK

Ezaugarri kuantitatiboak

Mikrokreditu kopurua: Mundukide ez da mikrokreditu entitate bat, ez da gure berezko lana, ez eta lehentasuna ere, mikrokreditua beste aktibitateen osagarri bezala erabiltzen da. Horregatik mikrokreditu kopurua ez dugu handitzen 2006/2007 kanpainan lortutako bolumenetik gora. Estrategia ez da kopuruan hasia, gure lana beste ekintzetan kontzentratu nahi dugu, nekazal produkzioaren sustapenean hain zuzen, aktibitate ekonomiko-produktiboa sortzen.



Mikrokredituen balio Eurotan: Nahiz eta mikrokreditu kopurua ez hasi, urtez urte ematen den mikrokredituen balio osoa handituz doa, ematen diren mikrokredituen batz besteko balioa handiagoa delako. Mikrokreditu sisteman sartzen den nekazari berriari kopuru mugatuko mikrokreditua ematen zaio (gaur egun txikiena 1.000 Mtn, 25 Euro inguru), urtez urte, itzultzen duen bakoitzari kopuru handiagoa eskatzeko aukera ematen zaio. Azken urteetan ere ematen den mikrokreditu handienaren topea igo egin dugu (gaur egun 6.000 Mtn, 225 Euro inguru da)



Mikrokredituen itzulpen tasa: Badira jada bost kanpaina itzulpen tasa orokorra %90etik gora dagoela. Lortzen den itzulpen tasa bikaina da, sektorean eta testuinguru horretan ezohikoa. Itzulpen tasa hori alde

batetik erabilitako metodologiaren ondorio da, baina baita nekazarien arduraren eta elkarlanerako konpromisoaren ondorio.

Ezaugarri kualitatiboak

Sistema hau lortzen ari den emaitzak eta garapenaren oinarria, Mundukide eta bertako nekazarien arteko konfiantza eta konpromisoari esker da. Baina zelan lortzen da konfiantza eta konpromiso hori?

Alde batetik Mundukideko kooperante eta nekazarien arteko harreman estuagatik. Egunero egunero daude beraiekin harremanetan nekazal sustapeneko lanetan, lurra bisitatzeko, instruktoreei jarraipena emanez, etab. Eta harreman hau ez da urte bat edo bikoia, jada ia hamar urte gaude Marrupan lanean.

Bestalde Mundukideren lanaren metodologia, zorrozatasuna eta kredituen jarraipenagatik. Mikrokreditu sistemaren metodologiako irizpide batzuk gako dira: aurre ebaluazioa, progresibitatea: Bestalde, mikrokreditua jaso eta itzultzeko baldintzak argiak dira eta bere osotasunean bete beharrekoak, eta betearazten dira. Gainera mikrokredituen kanpaina garaian hilero egiten dira nekazariekin topaketak itzulpena erraztu eta egoera desberdinen jarraipena egiteko.

Eta horretaz gain inbertitzeko aukera ona izatea ere beharrezkoa da itzulpenak ziurtatzeko, eta Marrupan badituzte aukerak: hasieran tabako salmenta, baina orain baita ortuetako produktuen edo sesamoaren salmenta dela... nekazariak, nahiz eta urriak, badituzte inbertsioa erreku-peratzeko aukerak.

Emakumeekin lana

Nahiz eta hasieran gizonekin lanean hasi soilik, 2004/2005 kanpainan hasi ginen emakumeekin ere lanean mikrokredituak emanez. Kanpainaz kanpaina emakume kopurua hasten joan da baina 2008/2009 kanpainan izan zen hazkunde nabarmena, kanpaina horren aurretik genero azterketa egin zen Programan, batez ere mikrokreditu sisteman parte hartzen zuten pertsona taldean. Azterketa horren ondorioz baldintza eta neurri berezi batzuk ezarri ziren emakumeen partehartzea handitu eta errazteko, aukera berdina ziurtatzeko asmoarekin.

Mundukiden generoaren enfokea zeharka lan egiten da lan ildo guztietan, mikrokredituenean ere, ez da egiten emakumeekin lan espezifikoak, hauek bizi dituzten errealitatekin gurekin lan egiteko aukera berdina izan ditzatela saiatzeko gara, horrela gizon eta emakumeen artean dauden egoera desberdintasunak txikitzea bilatzen da.

Mikrokredituak

TESTIGANTZAK



Nekazariak kredituen inguruko bilera batean

“Marrupa Programako ekintzen artean gehien baloratzen dudana, kredituek ematen diguten aukera, ortuetako teknikoek erakusten digutena eta beste herrixketako nekazariekin egiten ditugun esperientzia trukeak dira”.

Zelia Adriano

“Marrupako baserritarrok, komunitateetan eta lanerako bateratuta bizi gara.

Mundukidek zuzentzen duen kreditu sistemak, herrixketako pertsoneri diru pixka bat eskuartean izateko aukera ematen digu bizitzeko behar ditugun bitartekoak lortu ahal izateko. Bestela oso zaila da hemen aurrera egitea”.

Simao Rimunba

“Beste nekazari batzuekin batera, gasolinazko motor bonba erosteko erabiliko dut kreditua, ho-

rrela lursail handiagoa landu ahal izango dugu familiako elikadura bermatzeko. Soberakina, merkatuan salduko dugu edo beste produktu batzuekin trukatuko ditugu”.

Bernardo Coroncho



“Mundukidetik oso modu eraginkorrean lagundu didate zailtasunak gainditzen.

Laguntza ekonomiko eta teknikoak eskaintzen duten ekimenak behar beharrezkoak dira guretzako”.

Ana Bichehe

“Programak mikro kreditu bitartez ematen duen diru kopurua gehitzea nahiko nuke. laz bi ahuntz erosi nituen; eta nire familia mantentzeko behar beharrezkoak ditut horrelako aurrerapausoak ematea”.

Francisco Mousa



“Pozez betetzen nau kredituak Marrupako familia bakoitzari nekazal ekoizpena sendotzen nola laguntzen dien ikusteak. Jasotzen duten diruaren zati batekin lursail handiagoak lantzen dituzte uzta ugariagoa jaso ahal

izateko; eurite garaian, biltegian gordetako janariari esker gosetarik ez pasatzeko.

Kredituak, familia bereko gizon-emazteen, bion izenean ematerakoan, familia ekonomian emakumearen parte hartze zuzenagoa bultzatzen da”.

Laura Darphin kooperantea

“25 eta 250 euro bitarteko kredituak ematen dira eta hileroko jarraipena egiten zaie auzoka antolatuz. Proiektuaren eta herritarren arteko gertutasun eta konfiantza giroari esker, kredituen bueltatze tasa %90ekoa da. Mozambike guztian esperientzia hau bakarra da eta AMODER izeneko erakunde finantzario mozambikarrari erakusten ari gara dinamika, beste distritu batzuetan martxan jarri dezan”.

Jonathan Domarle kooperantea



Zarugalde, 30 • 20500 ARRASATE-MONDRAGÓN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 772 010 • www.mundukide.org
E-mail: mundukide@mundukide.org

AMODER ERAKUNDEAREKIN ELKARLAN HITZARMENA

Majune Programa da Mundukidek Mozambiken bultzatzen duen hirugarren programan. 2010ean hasi ginen lanean, Marrupa Programako esperientzia eta irakaspenak oinarri hartuta, tartean mikro-kredituen sistema ere.

Baina Majunen mikro-kredituen sistema bultzatzerakoan, beste pauso bat eman dugu, Amoder erakundearekin elkarlan hitzarmena sinatu dugu.

Amoder Mozambiqueko mikrokreditu eta mikrofinantza erakunde historikoetako eta zabalduenetarikoa da. Gaur egun bere lana merkataritzaren finantziatziora bideratzen du eta ez dute nekazal ekoizpenaren finantzaketan esperientziarik. Hitzarmen honen bidez, Amoder erakundeak teknikari bat liberatu du Mundukideren Majuneko mikrokreditu sisteman teknikari moduan parte hartzeko. Modu honetan sistemari buruzko lehen eskuko informazio eta ezagutza lortzen ari da.

Parte hartze horren azken helburua Amoderrek Mundukideren sistema ezagutu eta bereganatzeko aukerak aztertzea da. Mundukiderentzako elkarlan hau oso da esanguratsua, Amoderrek bere egin eta Mozambiken zehar erabiliko balu, milaka nekazariri finantzaketa aukera berriak irekitzea ekarriko bailuke.

Garrantzi handiko ekimena!



2002. urtean Marrupako nekazariak kreditua entregatzeko ekimenarekin hasi ginen. Urte berean, eta 2003ean, kreditua espeziak, janaria eta salgaiak eskuratzeko txartelen bidez eman zen, hurrenez hurren. 2004tik gaur egunera arte, dirutan eman dira kredituak, euri garaian nekazaritza kanpainan erabiltzeko.

Urtez urte, konturatu gara, eta baieztatu egin da, erreminta hori garrantzi handikoa dela gurekin lanean diharduten nekazari familien nekazaritza jarduerarako. Gure esperientziatik abiatuz, badakigu entregatutako funtsak, nagusiki, lursailak presartzeko une inportanteetan lan-eskua kontratatzeke erabiltzen dituztela, eta hala, landutako saila handitu egiten dela, errenta sortzen duen nekazaritza jarduera ere bai, etab.

Kreditua jasotzen duten nekazariak lortzen duten etekina zenbatekoa den zehatz-mehatz jakiteko datu zehatzik ez badaukagu ere, itzulkin tasak %90ekoak izateak, sartu diren pertsonak urtez urte errepikatzeak, hileko kreditu bileretan parte hartzea iraunkorra izateak eta ekimenarekin jarraitzeko eskaera egoteak adierazten duena da kredituok garrantzi handikoak direla eta hartzen dituzten biztanleek etekinak lortzen dituztela.

Jose Maria Iglesias

2011 Marrupa proiektuko arduraduna

Kreditua eman nahi diot Marrupako nekazariari. Deseo conceder un crédito para el agricultor de Marrupa.

% 20 eta %30 arteko kenkaria izan dezakezu zure Errentaren gaineko aitorpenean. Horretarako bete itzazu eskatutako datuak.

Puede deducir entre un 20% y un 30% de su aportación en la declaración de la Renta en función de su régimen fiscal. Para ello es imprescindible completar los campos.

Izen-Abizenak: _____ N.A.N.: _____
Nombre y Apellidos D.N.I.

Helbidea: _____ Herria: _____ Codea: _____
Dirección Población C.P.

Tfnoa : _____ E-Maila: _____

20€ 50€ 100€ **Beste kopuru bat** **Aportazio bakarra** **Hilero** **Urtero**
Otra cantidad Aportación única Todos los meses Anual

Aportazioa Euskadiko kuxxako edozein bulegotan egin dezakezu. Mesedez, fitxa bete ondoren entregatu bulegoan eta eskatu ekarpena Mundukideko kontura ingratsatzeko. Eskerrik asko. La aportación se puede realizar en cualquier sucursal de Caja Laboral. Por favor, rellene la ficha y entréguela en la sucursal, solicitando ingresar la aportación en la cuenta de Mundukide Fundazioa. Gracias.

Caja Laboral : 3 0 3 5 0 0 0 1 5 6 0 0 1 0 1 2 2 1 9 2



CIF: G20673604 • Tel.943772010 • Zarugalde, 30. Arrasate 20500 .www.mundukide.org

Laguntzailea:



Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak MUNDUKIDE Fundazioaren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, zuzendu zaitzez Mundukideko egoitzara.